

Gipuzkoako Batzar Nagusietako
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Batzordea

Agerraldia, 2021-10-20

Hiri arteko autobus zerbitzu publikoa Astigarragan

Sarrera gisa

Egun on, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Batzordeko presidenteari, Jorge Martin Arias jaunari, batzordekideoi eta agerraldi honetan zaudeten gainerakoei.

Lehenik eta behin, eskerrik asko agerraldi hau egiteko eskaera onartzeagatik eta Astigarragak garraio publikoarekin eta, bereziki Lurraldebusen zerbitzu publikoarekin dituen arazoen berri emateko parada eskaintzeagatik.

Xabier Urdangarin naiz, Astigarragako alkatea eta, gaur, Udalaren eta astigartarren izenean nator, oso kezkatuta gauzkan egoera baten harira.

Agerraldia zergatik eskatu

Uztailaren 1ean Foru Aldundiak eta Lurraldebusek Buruntzaldeko hiri arteko autobus zerbitzuaren emakida berria jarri zuten martxan, besteak beste, Astigarragari zerbitzua ematen dioten lineak, BU12 eta BU13 lineak.

Zerbitzu berriaren hasiera ezin okerragoa izan zen, informazio gutxi eta berandu, lehen asteetan ordutegietan atzerapen ikaragarriak, murrizketak zerbitzuen maiztasunean eta geltokietan... Herritarren egonezina eta, baita ere, udalena nabariak izan ziren.

Egoera horretan agerraldia egiteko eskaera bideratu genuen, iragarri ziren aldaketa, eguneratze edo hobekuntzak ez zirela nahikoa izango ikusten genuelako, gero egiaztatu ahal izan dugun moduan.

Eta, atzekoz aurrera, hasieratik aurreratuko dizuet agerraldi honetan zuengana iristea nahi nukeen mezua: zerbitzu berriak ez die erantzuten, inola ere, astigartarren garraio publikoko

beharrei eta, hobekuntza txikiez harago, murrizketak atzean utzi eta baliabide gehiago jarri behar ditu Foru Aldundiak.

Donostiara egun seinalatuetan astigartar asko joaten da: San Tomas Eguna, Aste Nagusia, Kontxako estropadak, Errealaren partidak... Ez naiz mintzatuko zerbitzu bereziei buruz. Hala ere, utzidazue esaten, aste honetan bizpahiru herritarrek udaletxera deitu dutela, Erreala ikustera joateko autobus zerbitzu berezia kendu egin dutela esanez. Une honetan ez gaitu horrek kezkatzen. Gure kezka nagusia da egunero lanera, ikastera, osasun zerbitzuetara edo antzeko eginkizunetara joan behar duten herritarrei Foru Aldundia eskaintzen ari zaien garraio publikoa.

Astigarragaz bi hitz lehendabizi

Astigarragaz bi hitz egin nahi dizkizuet lehendabizi.

Biztanle kopuruaren hazkundera oso handia izan da Astigarragan azken 15 urteotan. Biztanle kopurua bikoiztu egin da. Une honetan, 7.378 biztanle gara eta 2019an egin genuen azterketa prospektiboaren arabera 2025erako 8.000 biztanle izango gara.

Jaiotze tasari dagokionez, Euskal Herriko altuenetakoa dugu, altuena ez bada. Gipuzkoako jaiotze tasa mila biztanleko 7 ingurukoa izan da azken hamarkadan. Astigarragako horren bikoitza izaten ari da urtero, azken hamar urteotan, mila biztanleko 13, 15, 17...

Biztanleria gaztea dugu. 12 urtetik aurrera Astigarragako gazte guztiek kanpora joan behar dute ikastera: derrigorrezko bigarren hezkuntza, erdi eta goi zikloak, batxilergoa, unibertsitatea... Une honetan, gaur bertan, 12 eta 22 urte arteko 682 gazte astigartar inguruko herrietara joan dira eskolara, gehienak Donostiara.

Garraio publikoaren aldetik, oso eskaintza kaskarra dugu, soilik Lurraldebuseko bi linea, Hernani eta Donostiako erdigunearekin lotzen gaituztenak. Beste garraio publikorik ez dugu, ez aldiriko trenik, ez eta oso hurbil ditugun herrietara joateko autobus zerbitzu publikorik ere: Errenteria, Oiartzun, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Andoain... oso hurbil izan arren, ez dugu garraio publikoko zerbitzu zuzenik.

Ez dugu, halaber, Donostiako ospitaleetara, unibertsitate campusera edo Donostia ekialdera joateko zerbitzu publiko zuzenik. Oinarri-oinarriko zerbitzuak diren ospitaleetara edo unibertsitate campusera joateko autobus zerbitzu zuzenik ez duen Buruntzaldeko herri bakarra gara.

Mugikortasun plana

2020an Astigarragako Mugikortasun Plana landu genuen, 2021eko martxoan onartu genuena. Plan horren diagnostikoan azterketa zehatza egin zen astigartarren garraio eta mugikortasun ardatzak aztertuz.

Batzorde honetako taldeentzat Mugikortasun Planaren ale bana ekarri dut.

Hiru ondorio hauek dakartza, garraio publikoari dagokionez, diagnostiko horrek:

1. Donostia ekialdea mugikortasun ardatz garrantzitsua da astigartarrentzat, hau da, astigartar asko mugitzen da egunero Donostiako ekialdera: Zuatzo, Errotaburu, Unibertsitateak, Antigua, Aiete, ospitaleak.
2. Bi perfil nabarmentzen dira astigartarren artean:

Garraio publikoaren gatibu diren pertsonak: ibilgailu pribaturik ez duelako autobusa erabiltzea beste erremediorik ez duen bidaiariak dira. Bereziki, Donostiara lanera doazen emakumeak eta ikasleak dira.

Kotxearen gatibu diren pertsonak: alegia lanerako joan-etorrietarako kotxearen alternatibarik ez duten pertsonak. Alternatiba existitzen dela ulertzen dugu ondorengo baldintzetatik bat gutxienez betetzen bada:

- Ibilbide bera egiteko kotxez baino 20 minutu edo gutxiago behar izatea
- Ibilbide bera egiteko kotxez baino %35 denbora gehiago behar izatea, gehienez

Mugikortasun planaren diagnostikoaren azterketak erakutsi digu lanerako mugitzen diren astigartarren % 74 kotxearen gatibu dela, hau da, ez duela lanerako joan-etorrietarako kotxearen alternatibarik.

3. Garraio publikoaren egungo estrategiaren mugak agerikoak dira: Hernani eta Donostiako Martutene-Loiola-Amara-Erdialdea auzoez gain, inora gutxira irits daiteke Astigarragatik ordu erdiko tartean. Hori dela eta, kotxe erabiltzaile gatibuaren figura gailentzen da: lanerako, aisialdirako, zerbitzu publikoetara joateko kotxearen alternatiba duinik ez duen herritarra. Ondorioa argia da, Astigarragan garraio publikoaren erabiltzaile potentzialak askoz gehiago dira erabiltzaile errealak baino.

Diagnostiko horretatik abiatuta, Mugikortasun Planak proposamen zehatzak jasotzen ditu Astigarragarako garraio publikoa hobetzeko. Horri buruz aurrerago ariko naiz.

Autobusaren garraio publikoa: bi linea

Astigarragari buruz hitz egin dizuet orain arte, biztanleria, hazkundera, mugikortasun plana... Hitz egin dezadan, gaiari helduz, autobus zerbitzuari buruz. Hiri arteko garraio publikoko bi linea ditugu eskura Astigarragan:

Batetik, BU13 linea, Hernanitik Donostiara doana (Okendora), zuzenean, Urumeako autobidetik barrena eta, bestetik, BU12 linea, Hernanitik Donostiara doana, Donostiako auzoetatik barrena, Martutene, Txomin, Loiola, Erriberak, Amara, erdigunea eta, azkenik Okendoko geltokira.

Zer gertatu da emakida berriarekin? Taula honetan duzue alderatuta eta laburbilduta, aurreko zerbitzua eta orain duguna:

	Lehen	Uztailak 1	Dif	%	Irailak 13	Dif	%
A1-BU12	463	366	-97	-%20,95	366	-97	-%20,95
A2-BU13	528	485	-43	-%8,14	582	54	%10,23
	991	851	-140	-%14,13	948	-43	-%4,34

Alderaketa egiteko eragiketa erraz bat egin dut, unitate gisa bidaia edo espedizio kopurua hartuta. Alegia, aurreko zerbitzuan zenbat bidaia genituen astelehenetik igandera, Hernanitik Donostiara eta alderantziz, eta zenbat ditugu orain?

Taulan agertzen dira hiru batura: batetik, lehen geneukan zerbitzuarena, hau da 2014tik 2021eko ekainaren 30era arte izan genuen zerbitzuarena (gorriz); bestetik, uztailaren 1ean martxan jarri zen zerbitzuarena (beltzez) eta, azkenik, hainbat egokitzapen egin ondoren irailaren 13tik aurrera daukagun zerbitzuarena (urdinez) .

Alderaketa horren ondorioak argiak dira:

1. Murrizketak.

Aurreko zerbitzuarekin alderatuta, uztailaren 1ean martxan jarri zen zerbitzuak % 14ko murrizketa aplikatu zuen, % 14 bidaia/espedizio gutxiago.

Irailan hainbat egokitzapen eta hobekuntza egin arren, murrizketekin jarraitzen dugu oraindik, % 4,34ko murrizketa bidaia/espedizio kopuruan. Eta bien bitartean, 2014tik gaur arte biztanle kopurua % 33 hazi da eta hazten jarraituko du.

2. Baliabideak linea batetik bestera eraman ditu Foru Aldundiak: irailean indarrean jarritako zerbitzua emakidaren aurreko zerbitzuarekin alderatuta, BU12 linea % 20 murriztu du eta BU13 linea, berriz, % 10 handitu.

Astigartarren iritzia

Lehen, uztailaren 1aren aurretik, geneukan zerbitzua oso kaskarra zen. Azken urteetan gorabehera asko eta larriak gertatu dira: herritarrak geltokian geratu lekurik gabe, irisgarritasun baldintzak betetzen ez zituzten autobusak, herritarrak hurbilen duten geltokira joan ordez aurreko geltokietara joaten ziren lekua ziurtatzeko, etengabeko matxurak, segurtasun eta higiene baldintza oso kaskarrak... Erreklamazio eta kexak behin eta berriz jarri dizkiote herritarrek Foru Aldundiari eta Lurraldebusi azken urteotan.

Emakida berriarekin herritarrak eta Udalak itxaropentsu geunden, behingoz eta betiko egoera horri irtenbidea emango zitzaiolakoan. Itxaropen hori zapuztuta geratu da emakida berriarekin.

Emakida berriak ezinegon eta haserre nabarmena eragin ditu astigartarren artean.

Argazki hau esanguratsua da. Udalak bilera irekia antolatu zuen emakida berriaren inguruko informazioa eskaini eta herritarren iritzia jasotzeko. 80 pertsona inguru etorri ziren bilerara eta, aforo mugen ondorioz, hainbat pertsona bilerara sartu ezinik geratu zen. Bilera horretara etorri ziren pertsonen % 80 emakumeak dira, emakume helduak, garraio publikoa behar dutenak lanera joateko. Garraio publikoaren gatibu dira, behar dute.

Bilera horren haritik, herritarren plataforma bat sortu da Astigarragan, autobus zerbitzu publiko duinaren aldeko plataforma. Plataformako ordezkarien argazkia ere esanguratsua da. Gehienak emakumeak, autobusa lanera joateko erabiltzen dutenak, behar dutenak.

Emakida berriak, bereziki BU12 linean egin dituen murrizketekin, kalterik handiena eragin die Donostiara lanera joateko autobusa behar duten emakumeei, hain zuzen ere, garraiorako baliabideen aldetik eta mugikortasunaren aldetik zaurgarrienak diren pertsonen.

Herri plataforma horrek sinadura bilketa bat egin du uztailetik irailaren 15era bitartean. Sinadura horiek Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuan aurkeztu zituzten joan den irailaren 27an. 1870 sinadura bildu dituzte, 16 urtetik gorako astigartarrenak. Astigarragan sinadura bilketa batean inoiz bildu den kopururik handiena da.

Zer eskatzen diote herritarrek Foru Aldundiari? (diapo 7)

Berehalakoan,

- A1/BU12 linea lehengora itzultzeko, lehengo maiztasun eta geltokiekin
- A2/BU13 linea eta errefortzuak gutxienez lehengora itzultzeko

Epe motzera,

- A2/BU13 linea 15 minutuko maiztasunera igarotzeko
- Errefortzuko zerbitzua zabaltzeko, beharrak ondo aztertuta
- Astigarraga Buruntzaldearekin eta Donostiarekin lotzeko beste linea aukera batzuk aztertzeko
- Herritarren iritzia jasotzeko prozesu parte-hartzaile bat egiteko eta bertan ateratako ondorioak betetzeko konpromisoa hartzeko.

Azter dezagun zer gertatu den linea bakoitzarekin, xehetasun handiagoz

BU13 linea. Esan dudan moduan linea hau Hernanitik irten, Astigarraga zeharkatu eta Donostiara doa, Urumeako autobidetik barrena.

BU13	Lehen	Uztailak 1	Dif	%	Irailak 13	Dif	%
Astegunetan	405	375	-30	-%7,41	470	65	%16,05
Larunbatetan	65	61	-4	-%6,15	62	-3	-%4,62
Igande eta jaiegunetan	58	49	-9	-%15,52	50	-8	-%13,79
Guztira	528	485	-43	-%8,14	582	54	%10,23

Linea hau hobetu egin du Foru Aldundiak, orduerdiroko maiztasunetik 20 minutuko maiztasunera. Orotara % 10 bidaia gehiago ditu, baina astegunetan hobetu du, izan ere, larunbatetan % 4 murriztu du eta igandetan % 13 murriztu du.

Astegunetan 20 minutueroko maiztasuna ontzat ematen dugu eta, alde horretatik, pozik gaude, baina arazo ugari gertatu dira irailean eta urrian. Ordutegiak ez dira betetzen ari zehatz mehatz, eta zerbitzu askotan hainbat minutuko atzerapenak gertatzen ari dira, egun askotan. Horrez gain, astegunetan beharrezkoa da lehen orduan 7:00etatik 8:00etara Donostiarako noranzkoan zerbitzua indartzea eta eguerdian 14:00etatik 15:00etara Donostiatik Astigarragarako zerbitzuak indartzea.

BU12 linea. Murrizketa ikaragarria maiztasunean eta geltoki kopuruan

Linea honekin gertatu denarekin oso kezkatuta gaude. Ikus dezagun, lehendabizi, datuei begiratuta zer gertatu den:

BU12	Lehen	Uztailak 1	Dif	%	Irailak 13	Dif	%
Astegunetan	335	295	-40	-%11,94	295	-40	-%11,94
Larunbatetan	66	39	-27	-%40,91	39	-27	-%40,91
Igande eta jaiegunetan	62	32	-30	-%48,39	32	-30	-%48,39
Guztira	463	366	-97	-%20,95	366	-97	-%20,95

Bidaia kopuruaren murrizketa erabatekoa izan da, astegunetan % 11ko murrizketa, larunbatetan % 40koa eta igande eta jaiegunetan % 48koa.

Honi gehitu behar zaio **geltokien murrizketa**: (diapo 9-10-11, geltokien irudiak eta zerrenda)

Donostiako noranzkoan 8 geltoki kendu ditu Foru Aldundiak: Hernanin 1, Astigarragan 3 (erdiguneko geltoki guztiak), Txominen 1, Erriberetan 3 (Erriberetan ez du geltokirik, Loiolatik zuzenean Anoetara doa).

Hernaniko noranzkoan, berriz, 9 geltoki kendu ditu: Amaran 1, Erriberetan 3 (denak), Txominen 2, Astigarragan 2 (erdiguneko geltoki guztiak) eta Hernanin 1.

Foru Aldundiak adierazi digu bi lineek elkar osatzen dutela eta bien artean zerbitzua hobetu egin dela. Gauza bat argi esan behar da: bi linea dira, behar ezberdinei erantzuten dietenak. BU12a behar dutenentzat berdin da beste linearekin zer gertatzen den. Martutenera, Txominera, Loiolara edo Erribera auzora lanera joan behar dutenentzat berdin da BU13a 20 minutuero den edo 10 minutuero den. Ez du zerikusirik.

Garbi esan behar dut, BU12 linearen kapilaritatea erabat galdu da: linea hori behar duten herritarrek Astigarragan geltokiak urrunago dituzte, helmugan geltoki gutxiago dituzte eta bidaien maiztasuna nabarmen murriztu da. Linea horren kapilaritate, eskuragarritasun eta eraginkortasunak erabateko galera izan du.

Datu ugari aipatu ditut orain arte. Hezur-haragizko pertsonen adibideak eman nahi dizkizuet ondoren eta, horretarako, lehen ikusi ditugun argazkiak berreskuratuko ditut. Ondoren aipatuko ditudan pertsonak argazki horietan daude.

Marijo, emakumea, sukaldaria. 50 urte pasatxo ditu. Txominen lan egiten du. Ez du ibilgailurik. A1 erabili izan du beti lanerako, orain BU12 linea. Larunbatetan lan egiten du. Geltokia Astigarragan etxetik urrunago du orain. Lehen busa etxetik 5 minutura zuen, orain 10 pasatxo. Lantokitik ere urrunago uzten du autobusak. Autobusak ez du igarotzen Txomin auzoan autobusentzat zehazki egin den bus-erraila. Larunbatetan lanetik irtendakoan 15:00etan Donostiatik irteten den autobusa ez du harrapatzen ozta-ozta. 50 minutu itxaron behar ditu. Lehen ordu erdian egiten zuena, orain ordubete behar du.

Montse, emakumea, adin bertsukoa, etxeko-langilea. Erribera auzoan egiten du lan Gizarte Segurantzaren ondoan. Geltokia Astigarragan lehen baino urrunago du. Helmugan lehen baino urrunago du orain geltokia. Hobeto esanda, ez du geltokirik. Geltoki bat Loiolan (topoaren ondoan) eta hurrengoa Amaran, Anoetan. Erribera auzoan ez du geltokirik. Senarrak edo alabek autoz gerturatu behar izaten dute lanera.

Oihane, 33 urte, gaztea. Donostiako Erribera auzora bizitzera joandako astigartarra. Ez du garraio publiko zuzenik Astigarragara. Egunean zehar ibiliaz irits daiteke Loiolara edo Anoetara. Gauetan, aldiz, etxera itzultzeko autobusik ez du, eta gaeuz Loiolatik edo Anoetatik zehar ibiltzea ez du batere gogoko. Bere kotxe partikularra erabiltzea beste erremediorik ez du.

Mikel, 21 urte, ikaslea. Informatika ikasketak egiten ditu Donostiako Campusean. Kotxe partikularra erabiltzen du beste aukera/alternatibarik ez duelako. Bera bezala, gainontzeko astigartar unibertsitate ikasleek ere hala egiten dute. Mikelek garraio publikoan ordubete beharko luke autoan 12-15 minututan egiten duena egiteko.

Begoña eta Manuel, 65 eta 70 urtekoak. Begoñak gaixotasun kroniko bat du eta tarteka ospitalera joan behar du. Manuelek, senarrak, laguntzen dio medikuarengana. Autobusa zegoenean, autobusa erabiltzen zuten. Orain, Manuelek kotxea hartu behar du eta aparkatzeko ordaindu. Bestela, alaba edo semeen lan-baimenak aprobetxatzen dituzte autoan joateko.

Geltokien murrizketa dela eta beste aipamen bat ere egin nahi dut. Astigarragan erdiguneko geltoki guztiak kendu ditu Foru Aldundiak. Rafaela Romero diputatu andreak adierazi eta iradoki du Astigarragako erdiguneko geltokiak kentzeko Foru Aldundiaren erabakia nolabait bat datorrela Astigarragako Udalak erdigunea oinezkoentzat irabazteko omen dituen asmo eta planekin.

Hori ez da horrela, inola ere. Herri eta hiri guztiek bezala, guk ere erdigunea oinezkoentzat irabazi nahi dugu, bai, baina ibilgailu pribatuen trafikoa mugatuz, ibilgailu pribatuena, ez inola ere garraio publikoa. Erdigunea oinezkoentzat irabazi bai, baina autobusa, taxia eta zama-lanetako garraiolaria erdigunetik pasaz.

Zergatik dio orduan hori Foru Aldundiak? Nire uste apalean, geltokiak kentzeko benetako arrazoia zurrizko edo ezkutatzeko. Zein da benetako arrazoia? Baliabideen murrizketa.

Hara, lehen (uztailaren 1a baino lehen), geltokirik murriztu gabe, A1 zerbitzuak Hernanitik Donostiarako ibilbidea egiteko (eta alderantziz) 45 minutu inguru behar zituen. Orain BU12ak linea edo zerbitzu hori ibilgailu edo autobus gutxiagorekin egiten du, 30-35 minutuko denboran, baina denbora horretan egiten du geltokien erdiak kendu direlako (besteak beste Astigarragako erdiguneko geltoki guztiak). Geltokiak mantenduta ezinezkoa da ibilbidea denbora horretan egitea. Eta, beraz, geltokiak kentzeko benetako arrazoia linea horretako baliabideak murriztu izana da, beste linea indartu ahal izateko.

Geltokiak kentzearekin linea honen kapilaritatea erabat hustu da eta pertsona kaltetuak dira linea hori behar duten pertsonak, adineko pertsonak eta irisgarritasun mugak dituzten pertsonak.

Alternatibak

Lehen aipatu dizuet Astigarragako Mugikortasun Plana landu dugula eta plan horrek, besteak beste, garraio publikoaren gaia aztertu eta alternatiba bat jartzen duela mahai gainean, laburbilduz, hauxe:

- DonostiBusen 26. linea, Martutenera doana, luzatzea
- DonostiBusen 35. linea luzatzea (Unibertsitateak - Antigua - Aiete - Ospitaleak), ospitaleetatik Astigarragara

Proposamen horren xehetasunak Mugikortasun Planean dituzue.

Zergatik alternatiba hori? Edozein astigarrarrek esaten du, zergatik ez luzatu Martutenera iristen den dBusen linea, 2 km luzatuta herri osoa hartuko luke? Era berean, dBusen 35. linea Astigarragara luzatzeak erraza dirudi denboran eta distantzian, ospitaleetatik Urumeako autobidetik barrena Astigarragara bost minutu daude.

Alternatiba hori planteatu dugu baliabide publikoak optimizatzeko, beti izango delako merkeagoa dagoeneko badauden lineak luzatzea berriak jartzea baino. Gure kalkuluen arabera, autobus bana jarri beharko litzateke linea horietan egungo maiztasunak mantendu eta Astigarragari zerbitzua emateko.

Jakina, Dbusen lineak Donostiako Udalaren eskumena dira eta hiri arteko garraioa berriz Foru Aldundiarena eta, jakin badakigu, konplexua izan litekeela horrelako zerbait egitea, ertz asko

dituelako (juridikoak, administratiboak, ekonomikoak, antolakuntzakoak...) baina ez da ezinezkoa, borondatea izanez gero.

Dbusen 26. linea Martutenetik Astigarragara luzatzeak (2 km dira) aukera eman dezake BU12 linea kentzeko eta BU12aren baliabideak 26. lineara eta BU13 lineara eramateko eta bi ardatz horietan zerbitzuaren maiztasuna igotzeko.

Ospitaleetara eta unibertsitateetara joateko, berriz, beti izango da merkeagoa badagoen linea bat erabiltzea, berria jartzea baino. Alternatiba hauek aztertzeko mahai bat sortzeko proposamena egin diegu Foru Aldundiari eta Donostiako Udalari.

Foru Aldundiak zer esan digu horri buruz. Esan digu bidelagun izango gaituela, baina Donostiako Udalak ontzat eman behar duela bide hori eta, edonola ere, Foru Aldundiak ez lukeela bere gain hartuko Donostiako eta Astigarragako Udalek egindako balizko hitzarmen baten ondorio ekonomikorik, alegia, ez lukeela baliabiderik jarriko.

Gauza bat ahaztu zaio Foru Aldundiari. Ospitaleetara edo Donostiako ekialdera (unibertsitateak, Errotaburu, Zuatzu...) garraio publikoa eskaintzeko eskumena, erantzukizuna eta ardura Foru Aldundiarena da. dBusen lineak luzatzea ez bada bideragarria, ez bada posible, Foru Aldundiari dagokio gaiari irtenbide bat ematea. Foru Aldundiak ez du bidelagun izan behar, irtenbideak eman behar ditu.

Benetan uste dugu aintzat hartzeko aukera dela, sakon aztertu beharko genukeena. Astigarragako Udala esfortzu bat egiteko prest legoke, betiere 9.000.000 euroko aurrekontua duen erakunde batek egin dezakeen mailako esfortzua.

Paradoxikoa da

Une honetan gertatzen ari dena paradoxikoa da.

Foru Aldundia une honetan milioi askoko bi azpiegitura egiten ari da Astigarragako lurretan. Batetik, garraio hiria (kamioien atsedenekua) eta, bestetik, 27. poligonoaren lotune berria. Biak Astigarragan, milioi askoko azpiegitura eta inbertsioak. Astigarrarentzat onurarik ekarriko ez duten azpiegiturak dira.

Eta, aldi berean, Foru Aldundiak Astigarragak duen garraio publikoko zerbitzu bakarrean murrizketak egin ditu eta ospitaleetara eta unibertsitateetara joateko linearik ez dugu, nahiz eta biztanle kopurua % 33 hazi den.

Paradoxikoa da eta ulertzen zaila.

Orain arte esandakoak laburbilduz, zer eskatzen diogu Foru Aldundiari:

- Orobat Astigarragako hiri arteko autobusaren garraio publikoko zerbitzuari baliabide gehiago eskaintzeko.
- BU13 linean behar diren errefortzuak ziurtatzeko, bereziki astegunetan lehen orduan Donostiara joateko eta eguerdian Astigarragara itzultzeko.
- BU12 linea lehen bezala jartzeko, hau da, maiztasuna ordu erdiro eta geltoki guztiak berreskuratuta.
- Astigarraga ospitaleekin, unibertsitateekin eta Donostiako ekialdearekin zuzenean lotuko duen autobus zerbitzu publikoa jartzeko, Udalak proposatutako alternatiben haritik edota hiriarteko linea berria jarritz.

Amaitzeko bi hitz

Noan amaitzera. Zein da gure aldartea etorkizunari begira, hurrengo aste eta hilabetei begira?

Itxaropentsu egoteko zantzu batzuk baditugu.

Emakida berriaren hasiera oso txarra izan zen, informazio gabezia, atzerapen ikaragarriak... Foru Aldundiak uztaila amaierarako hori guztia konponduko zuela hitz eman zigun. Eta hala izan da neurri handi batean. Gero, irailerako hainbat egokitzapen iragarri zizkigun eta horiek ere egin ditu.

Alde horretatik, Foru Aldundiak erakutsi ditu borondatea eta gaitasuna egokitzapenak egiteko.

Egokitzapen horiek eta hurrengo aste/hilabeteetan Foru Aldundiak egin ditzakeen antzeko egokitzapen eta doitze txikiak nahikoa izan daitezke, again, Buruntzaldeko beste linea batzuetan, ez dakit, baina Astigarragaren kasuan, horrelako egokitzapenekin ez da aski, nabarmen baliabide gehiago jarri behar direlako.

Emakida berriak, oker ez banago, 10 urteko iraupena du, beste bost urte luzatzeko aukerarekin. Orain da unea behingoz eta betiko Astigarragari garraio publiko egokia eskaintzeko. Ezin dugu sinetsi Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek 10-15 urtez astigarrarak kondenatu nahi dituztenik ospitaleetara edo unibertsitateetara joateko autobus zerbitzu zuzenik gabe. Bidegabea litzateke.

Astigarragako Udala eta ni neroni prest gauzkazue elkarlanerako, mahai gainean jarri ditugun proposamen eta eskariak sakonago lantzeko eta partekatzeko, betiere oraingo egoera gainditu eta Astigarragako herritarrei autobus zerbitzu publiko egoki bat eskaintzeko helburuz.

Eskerrik asko

Xabier Urdangarin Lasa
Astigarragako alkatea